



IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN, EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIORDEA ETA IDAZKARIA

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2006ko abenduaren 26an egindako bileran, besteak beste, honako Erabakia hartu zuela:

ERABAKI PROPOSAMENA: GAZTE POLITIKA INTEGRALA SUSTATZEKO BITARTEKO NEURRIAK ONARTZEKO DENA. (RSP. 2006/01278) (A/20060548)

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio gazte politikaren eskumena, EAEAEko 10.30 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bertako Erakunde Erkideei dagokie gazte politikaren esparruko legegintza ahala (zentzu arau-emailetik), garapen ahala eta ekintza zuzenerako ahala (Lurralde Historikoen Legeko 6. artikulua, c) atala, 2. paragrafoa).

Jardun-esparru horren baitan burutu da, izan ere, EAEko II. Gazte Plana 2002-2005, 2005eko abenduaren 31ra arte indarrean egon dena.

Beste alde batetik, indarrean dagoen Legegintzaldiaren koaliziorako Jaurlaritzaren Erabakian jasota dago Gazteen Euskal Legearen proiektua lantzeko konpromisoa.

Etorkizuneko legeak, besteak beste, gazte politika integralak estandarizatzeko eta orain arte Gazte Planarekin marbxan jarritako eta borondatean oinarrituriko formularen menean lan egin duten Euskadiko instituzioen arteko harremanak koordinatzeko mekanismoak formalizatu, bermatu eta benetan egonkortzeko esparru egoki eta beharrezkoa sortzea ahalbidetuko du.

Hori dela-eta, EAEko II. Gazte Planaren indarraldia amaitu bada ere, bertan parte hartu duten Eusko Jaurlaritzako sailtako ordezkariak, Plan horren 2006ko urtarrilaren 12ko Zuzendaritza Batzordean, beharrezko iritzi diote Legea onartu bitartean gazte politika integralak sustatzen jarraitzeari. Horrenbestez, tarte horretarako bitarteko neurri jakin batzuk hartzea egokitzat jo da, eta neurri horiek Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkezten zaizkio proposamen honen bitartez.

Hortaz, Kultura sailburuak hala eskatuta, arauz beharrezkotzat jotzen diren bestelako txostenek diotena errespetatuta eta Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Koordinazio Zuzendaritzaren txostena eta Gazte Planeko Zuzendaritza Batzordearen Ziurtagiria aztertu ostean, hau da Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako

ERABAKIA

“Etorkizuneko Gazteen Euskal Legea onartu arte gazte politika integrala sustatzeko bitarteko neurri hauek onartzea:

1.- Kultura Sailak, Gazteria Zuzendaritzaren bitartez, gazte gaien inguruko ekintza positiboan koordinazio eta jarraipen lanak burutuko ditu, gaiaren eskumena duten organoek ekintza positibo horiek antolatzeke eta kudeatzeko duten ahala errespetatuta.

2.- Gazteen Euskal Legea prestatu bitartean, eta behin betiko onartu arte, Kultura Sailak, ekitaldi bakoitzean, ekitaldi horretan burutuko diren ekintzen programazioa aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluan, nonek onar dezan.

Ekintzen programazioan, jardueren zerranda ez ezik, horiek burutzeaz arduratuko diren organoak, aurreikusitako finantziazioa —aurrekontu-bitartekoak eta aurrekontuak egiteko dagozkion irizpideak errespetatuta— lortu beharreko helburuak, hartzailak eta ekintza ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak zehaztuko dira.

Ekintzak burutzeko ardura izango duten organoak Eusko Jaurlaritzako sailak izango direnez gero, finantziazioan dagozkion programa eta aurrekontu-sailen identifikazioa adierazi beharko da, bai eta aurrekontu-bitartekoak eta hartutako helburuak ere.

3.- Ekitaldi bakoitza amaitutakoan, Kultura Sailak ekitaldi horri dagokion jarraipen txostena aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, eta txosten horretan enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eskumena duten sailek burututako ekintza positiboen arteko koordinazio maila aztertuko da. Aipatutako gaien eskumena duten sailek burututako ekintzak adieraziko dira txostenean.

Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaion txostenean enpleguari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politiken eta gazte politikaren arteko osagarritasun mailaren balorazioa erantsiko da.

4.- Gazteria Zuzendaritzak Erabaki honetan egiten diren aurreikuspenak betetzeko xedearekin, behar den informazioa bildu eta aztertzeko eginkizunari helduko dio. Horretarako, aipaturiko gaien eskumena duten sailek kasu bakoitzean behar den laguntza emango diote Gazteria Zuzendaritzari.

5.- Kultura Sailak, bere aldetik, gazte politika integrala bultzatu eta koordinatzeko mekanismo hauei eutsi beharko die:

- Atari gaztea eta Lehiatila bakarra (Gazteaukera).
- Gazte politikarekin erlazionaturako planekiko koordinazioa.
- Mahai sektorialak.
- Udal plan estrategikoak prestatu eta garatzeko finantziazioa eta gazte ekipamenduen sarea sendotzea”.

Eta horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan, ziurtapen hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 9an.

